



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

210. INFORMAZIO BULETINA

2025eko UZTAILA/ABUZTUA



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea

ALBISTEAK

Errekalde-Galarreta bizikletentzako eta oinezkoentzako bidea eraikitze obrak lizitatu dira.

Proiektu hau Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko du.

Proiektu honen helburua da GI-2132 errepidea egokitzea bizikleten eta oinezkoen erabilerarako plataforma bat eraikitze, ekainaren 10eko 2/2013 Foru Arauak behin betiko onetsitako Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen arloko planaren zehaztapenekin bat etorriz.

Proiektatutako bizikleta eta oinezkoentzako bidea Errekaldeko biribilgunean hasten da. Hortik igarotzen da Donostia eta Lasarte-Oria lotzen dituen bidegorria, eta Hernaniko "10-Galarreta eremuan" egitea aurreikusten denzatoraino iristen da, pertsona eta motorrik gabeko ibilgailuen zirkulazio segurua ahalbidetzeko, Hernaniko Galarreta eremuarekin dagoen Donostiako eta Lasarte-Oriako hiribilbearen loturan. Eremu horrek industria, kirol, merkataritza eta hezkuntza instalazioak hartzen ditu, eta, aldi berean, Chillida-Leku kultura gune interesgarriari zerbitzua ematen dio.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 4,6 milioi eurokoa da.

Proiektu hau Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak kofinantzatuko du, 2.8 helburu espezifikoaren barruan: "hiri mugikortasun multimodal eta jasangarria sustatzea, karbonoaren zero isuri netoko ekonomiara doan trantsizioaren barruan".

Informazio gehiago: [Kontratazio Plataforma](#)

Ibai-ibilguak lehengoratzeko hainbat obra lizitatu dira.

Proiektuak Europako funtsekin kofinantzatuko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak ibaiak lehengoratzeko obra batzuk lizitatu ditu, 2020-2035 aldirako Oztopoak Iragazkortzeko Plan Zuzentzailean jasotakoak. Zehazki:

- **Granada erreka presa zaharra eraisteko lanak Altzolarats ibaian** (Aia-Zestoa).
 - Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 65.074,04 eurokoa da.
 - Proiektu hau **Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak** kofinantzatuko du, 2.7 helburu espezifikoaren barruan: "natura, biodibertsitatea eta azpiegitura berdeak babestea eta sustatzea, baita hiri-eremuetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea".
- **Olea eta Zuloaga presak iragazkortzeko proiektuaren obrak Deba ibaian** (Soraluze).
 - Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 141.221,05 eurokoa da.
 - Jarduera hau **MERLIN** proiektuaren parte da, eta Europar Batasunaren H2020 ikerketa- eta berrikuntza-programaren finantzaketa jaso du.

Informazio gehiago: ["Obra Hidraulietako" webgunea](#)

2025eko UZTAILA/ABUZTUA

Ideiak 2025-mugaz gaindiko hiritargoaren proiektuak dirulaguntzen programaren deialdia.

Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura 150.000 eurokoa da.

Ekainaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (123. zk.) argitaratu dira Ideiak 2025-mugaz gaindiko hiritargoaren Proiektuak dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia.

Dirulaguntza hauen helburua da Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoko herritarren artean loturak sortzen lagun dezaketen mugaz gaindiko egitasmoak finantzatzea. Aurkezten diren proposamenak bat etorri behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoan identifikatutako erronkekin eta helburu estrategikoekin, pertsonen ongizate integralari lagundu eta komunitatearen balioak indartuko dituztenak. Lehentasuna emango zaie elkarteen eta herritarren arteko lankidetzak sustatzen dutenei, gazteen ikuspegia dutenei, genero ikuspegia txertatzen dutenei eta eleaniztasuna euskaratik garatzen dutenei. Aurkezten diren proiektuek mugaz gaindikoak izan behar dute.

Dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte pertsona fisikoek, elkarteek, fundazioek, enpresek, unibertsitateek, udalek, mankomunitateek edo interes ekonomikoko taldeek. Proiektu hauek derrigorrez, bi lurraldeetako eragileek elkarrekin aurkeztu beharko dituzte eta partzialki bada ere Gipuzkoan garatu behar dira.

Eskabideak aurkezteko epea irailaren 5ean amaituko da.

Informazio gehiago: [2025ko deialdirako esteka](#)

“e-Gobernurako aplikazioak eta IKT azpiegitura aurreratuak” hainbat proiektu lizitatu dira.

Proiektu horiek Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko ditu.

IzfeK (Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak) lizitatu ditu kontratuak, eta haren jarduera nagusia da zerbitzu informatikoak ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, foru sektore publikoa osatzen duten erakundeei eta hala eskatzen duten Gipuzkoako Lurralde Historikoko beste toki erakunde batzuei.

Zehazki:

- **Big Data azpiegitura: switch-en hornidura, euskarria eta mantentzea.** Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 486.420 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025eko abuztuaren 4an amaituko da.
- **Microsoft lizentzien horniketa.** Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 886.930 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025eko abuztuaren 4an amaituko da.

Esku-hartzeak Euskadiko EGEF Programaren 1. Helburu Politikoaren barruan kokatzen dira: Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa; Helburu espezifikoaren barruan: 1.2. Digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat.

2025eko UZTAILA/ABUZTUA

Lasarte-Urnieta bizikletentzako eta oinezkoentzako bidea eraikitzeko obrak lizitatu dira.

Proiektu hau Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko du.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren helburuetako bat da probintziako hiriguneak lotzea garraio jasangarria erraztu eta indartuko duten azpiegituren bitartez, biztanleen bizi-kalitatea garatzea eta ingurumen-baldintzak hobetzea lortuz.

Obra horien helburu nagusia da Lasarte eta Urnieta arteko lotura egitea, 1.200 metro inguruko bidegorri baten bidez, eta horietatik 500 metro inguru tunel baten barruan egiten dira. Ibilbidea oinezkoentzako bide eta/edo bidexka bat dagoen eremuetatik igarotzen da, eta erabilera berrira egokitu beharko da.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 1,6 milioi eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025ko abuztuaren 18ean amaituko da.

Proiektu hau Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak kofinantzatuko du, 2.8 helburu espezifikoaren barruan: "hiri mugikortasun multimodal eta jasangarria sustatzea, karbonoaren zero isuri netoko ekonomiara doan trantsizioaren barruan".

Informazio gehiago: [Kontratazio Plataforma](#)

POCTEFA INTERREG Helburuaren proiektuen deialdiaren topaketa birtuala.

Topaketa irailaren 16an izango da.

POCTEFAK topaketa birtual hau antolatu du INTERREG Helburuaren deialdirako hautagaitzak prestatzen ari diren sustatzaileentzat.

Helburua da proiektuaren ideiak partekatzea, sinergiak sortzea eta mugaz gaindiko lankidetzak indartzea deialdi horren esparruan.

Ekitaldian zehar, honako hauek egin ahal izango dira:

- Proiektu-ideiak gehienez 2 minutuan aurkeztea, elevator pitch teknika erabiliz.
- Beste proiektu-proposamen batzuk ezagutzea eta lurraldeko beste eragile batzuekin harreman estrategikoak ezartzea.
- Ideiak trukatea Programako erakunde-bazkideekin batera.

Topaketa 10:00etan hasiko da eta ordu eta erdiko iraupena izango du. Parte hartzeko **[izena eman](#)** behar da.

Informazio gehiago: [Albisteak](#)



2025eko UZTAILA/ABUZZTUA

Hiri Agendak bazkide-deialdi bat egin du "Hiri Trinkoak: Hiri Plangintza Jasangarria eta Hedapena Arintzea" gaiari buruzko Gaikako Elkarte berrian sartzeko.

Deialdia abuztuaren 27an abiatu da.

Hiri Trinkoei buruzko bazkideen deialdia abuztuaren 27an ireki da. Ordura arte, interesa duten aldeak **Ex-Ante ebaluazioa** berrikustera animatu da, gaiaren eremua hobeto ulertzeko eta bazkide potentzialek Elkarteari nola lagundu diezaioketen ulertzeko.

Gainera, irailaren 3an online mintegi bat egingo da eskatzaileentzat. Bertan, eskaera-prozesuari eta EBrako Hiri Agendaren barruko Gaikako Elkarte batetik espero daitekeenari buruz.

Informazio gehiago: **Albisteak** (gaztelaniaz)

PRTRa 2026an ixtea.

Europako Batzordearen komunikatua.

Europako Batzordeak azpimarratu du ez dela PRTRa luzatuko, eta 2026ko abuztuaren 31 dela inbertsio guztiak gauzatzeko azken eguna.

Erakunde betearazle guztiek ahaleginak areagotu behar dituzte, egiteke dauden inbertsioak erabat gauzatzen direla eta CoFFEEen behar bezala egiaztatzen direla ziurtatzeko.

Ikusi Komunikatua (pdf ingelesez)



2025eko UZTAILA/ABUZTUA

EUROPAKO DEIALDIAK

NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK

Laguntza-deialdia egin da 2025. urterako, Aula Mentor programaren mendeko Mentore Gelak sortzeko, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. *Eskabideak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da.* [**Informazio gehiago.**](#)

EAEko toki-entitateei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei laguntza ekonomikoak emateko 2025eko deialdia onartu da, inmigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu eta inmigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak gara ditzaten. [**Informazio gehiago.**](#)

Digitalizazioaren esparruan produkzio-sektore estrategikoen eraldaketa digitalerako laguntzak emateko oinarri arautzaileak, parte-hartzaileak datu-guneetara egokitzea eta sartzeari sustatuz, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana-Next Generation EU (Datu-guneen kita) planaren esparruan. [**Informazio gehiago.**](#)

[**“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea**](#)